

Abenduaren 23an
ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (C)
Caritas erakundearen jardunaldi berezia

Agurra

Gu salbatzera datorren Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Itxaropena otoitz bihurtzen da Abendualdiko laugarren igande honetan: “isur Jauna zuere zuzentasuna, erne dadila gudan salbamena, jaio bedi gure artean justizia”.

Eguberri aurreko igande honetan, urtero bezala Caritas, elizaren erakundeak gogora dakartza behartsuak. Gogoan izango ditugu otoitzean eta diru-bilketa berezian. Behartsuei harrera ona eginez, Kristo onartzeko prestatzen gara.

Abendualdiko argia piztea (*Kantua, liburuxka honetan, 5-6 orrialdeetan*)

Damu-otoitza (*Kandelen ezaugarria egiten bada, utzi Damu-otoitza*)

Senideok: itxaropen aldian aurrera goaz. Andre Mariaren antzera Jaunaren etorrerarako prest egon nahi dugu. Aitor ditzagun apalki gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

— Jesus Jauna, Zuk kentzen duzu munduko bekatua: erruki, Jauna.

— Jesus Jauna, Aitaren eskuinaldean jarririk zaude Zu: Kristo, erruki.

— Jesus Jauna, bekatarien artera etorri zinen Daviden Seme: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Isur ezazu, Jauna, gure bihotzetan zure grazia;
eta, aingeruak esanik,
zure Seme Jesu Kristo gizon egin dela jakin dugunoi,
iguzu, Haren nekaldi eta gurutzearen bidez,
iritsi gaitezela piztueraren ospera.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Itxaroten duenarengan salbamena ertzen dela Mariarengan ikusten dugun garbien. Gure ahaleginen gainetik dago Jaunaren dohain neurrigabearen indarra.

Lehenengo irakurgaia (Mi 5, 2-5a)

Mikeas Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: Zu, Efratako Betleem, Judako herrisketan txiki hori, zuregandik jaioko da Israelgo agintaria. Aspaldikoa da haren sortzea, betiereko egunetakoa. Horregatik utzi egingo ditu Jaunak, amak haur egin dezan arte. Orduan haren senide hondarrak Israelgo seme-alabetara itzuliko dira. Zutituko da, eta Jaunaren indarrez larratuko ditu, Jaunaren, haien Jaungoikoaren, izen handiz. Lasai biziko dira; handi agertuko baita lurraren mugetaraino, eta hura izango da gure bakea.

Erantzun-salmoa (Sal 79, 2a eta 3acd. 15-16. 18-19)

Gu - re ar - te - ra be - tor, Jau - na, zu - re be - ti -
 ko bi - hotz o - na.

Israelgo Artzain, adi ezazu,
 Kerubin gainean eseri ohi baitzara,
 zure indarrari eragiozu,
 zatoz eta salba gaitzazu. R/.

Itzul zakizkigu, gudari taldeen Jainko,
 begira zerutik, ikus, mahatsondo honi ager zakizkio:
 zure eskuz aldatu duzun adaxka honi,
 Zuk indartu duzun landareari. R/.

Emaiozu eskua, aukeratu duzun gizonari,
 Zeuk indartu duzun gizasemeari.
 Ez gara Zugandik urrunduko,
 gauzkazu bizirik eta zure izena dugu deituko. R/.

Bigarren irakurgaia (Heb 10, 5-10)

Hebertarrei egindako epistolatik

Senideok: Kristok, munduan sartzerakoan, hau dio: «Oparirik eta eskaintzarik ez zenuen nahi izan, baina gorputza eman zenidan Niri; erreoparirik eta bekatuentzakorik ez zitzaizun atsegin. Orduan esan nuen Nik, Niretaz Liburuan idatzita dagoena: Hona hemen Ni, Jainko, zure nahia egin dezadan». Lehendabizi honela esaten du: «Oparirik eta eskaintzarik, erreoparirik eta bekatuentzakorik, ez

zitzazun atsegin izan», hauek legez eskaintzen badira ere. Gero honela dio: «Hona hemen Ni, zure nahia egin dezadan». Lehendabizikoa kendu eta bigarrena jartzen du. Nahi horren indarrez santu eginak gara, Jesu Kristok behin betiko egin zuen bere gorputzaren opariarengatik.

Aleluia (Lk 1, 38b)



Hona hemen ni, Jaunaren mirabea;
gerta bekit zuk diozun bezala.

Ebanjelioa (Lk 1, 39-45)

Homiliarako argibideak

Zorionekoa Zu, sinetsi duzulako

Herri txiki batekoa izanda, non jaio garen galdetzen diguteenan, zein probintzian dagoen azaldu beharko diegu kanpotarrei. Urrutikoei, berriz, puntu kardinalen koordenadak erakutsi behar zaizkie, ez baitituzte gure probintzia ere ezagutzen. David erregea bertan jaio izanak, anonimotasunetik atera zuen Betleemgo herria. Baina herri txikia izaten jarraitzen zuen, profetaren arabera (Mi 5,1-4). Hala eta guztiz ere, han zen jaiotzekoa **Israelgo Mesias**. Herri horren etorkizuna aldatuko du horrek, eta denek ezagutuko dute kristautasunaren historian. Jesus munduaren periferian jaio zen, familia txiro eta ezezagun batean. Ez da pertsona handiak bakarrik

erakusten dizkiguten gure historia liburuetan ikusten dugun heroi horietako bat. Inperioaren geografiaren txoko batean jaioz, Jesusek bere egin du pertsona **pobre eta xumeen historia**.

Pertsona pobreek elkarri laguntzen diote, senide artean, ezin baitute morroirik eduki. Pertsona pobre eta xumeek keinurik txikienen handitasuna ikusten dute. Isabel berehala konturatzen da bere lehengusinak, Mariak, garrantzitsuagoa den norbait duela sabelean, Lehengusina hori **Nire Jaunaren Ama** da orain. Mariak Isabeli egiten dion bisitak Mariaren maitasun handia uzten du agerian, haurdun egonda bidaia luze bati ekiten baitio, bere semearen haurdunaldiaren azken hilabeteetan den lehengusinari laguntzeko (Lk 1,39-45). Jainkoa bere barruan edukitzea da, ordea, Mariak Isabeli egiten dion opari handia; Joan eta horren ama ere berehala ohartzen dira horretaz. Ez dugu harritu behar, beraz, Joanek bere amaren sabelean pozez jauzi egiteaz. Isabelek berehala ikusten du Mariaren fedea; horrexek ekarri du poza mundura, Jainkoa gizon eginda. Jainkoa bere sabelean hartuta erakutsi du **Mariak fedea**, horixe izan da Jainkoaren maitasunari emandako erantzuna.

Jainkoaren maitasun horrek eraman du Jainkoaren Semea gizon egitera. Honela dio Jainkoaren Semeak une horretan: "Hemen nauzu, zure nahia betetzeko" (Hb 10,5-10). Sakrifizioz eta eskaintzaz betetako Jainkoaren herriaren historia guztiak ez zuen lortzen zuzentzea eta Jainkoak nahi zuen bidean sartzea. Beharrezkoa da Jainkoa bera bere Semean etortzea, historia hori konpontzeko. Eta kontua ez da Jainkoari gauzak eskaintzea, **nork bere burua eskaintzea** baizik. Horregatik, gorputz hilkor bat hartu du Jesusek, Aitari bere bizia askatasunez eta maitasunez eskaini ahal izateko, bere anaia-arreben alde, gizakion alde. Aitari eta anaia-arrebei eskainitako maitasun keinu hori berreroslea eta salbatzailea da zinez.

Aitaren nahia betetzeko borondatez dator Jesus mundura. Sorreratik bertatik Jainkoak gizakiokin **maitasunezko helburua** duela erakusten du borondate horrek. Jainkoak bere irudi eta antzera egin du gizakia, eta Jainkoaren intimitatean sartzera deituta dago. Ez du egundoko balentria egin beharko, ordea, zeruetara igotzeko eta han egoteko. Jainkoa jaitsiko da gizakiarengana, bere besoetan hartuko du, eta bere bizitzaren parte egingo du. Jainkoa gizon egingo da, gizona Jainko izatera irits dadin.

Mariak bezala, fedez hartu behar du gizakiak Jainkoa bere bizitzan. **Fedezko historia** da salbazioaren historia. Abrahamen eta Mariaren ereduari jarraitu nahi dioten gizon-emakume batzuen historia da. Jainkoaren aginduan sinistuta, bere aberria eta familia utziko ditu Abrahamek, eta bideari ekingo dio. Maria ere bidean jarriko da, Jainkoaren agindua onartuta. Batek poz handi bat hartzen duenean, ezin izaten du beretzat gorde, eta senide eta lagunei jakinaraztera joaten da. Jesusenganako fedea hartzen lagundu, eta Gabonetan Harekin elkartzeko presta gaitzala Mariak, Eukaristia honetan.

Jainkoaren herriaren otoitza

Eska dezagun, senideok, Jaunaren laguntza, bere errukiz mundura etor dadin eta salbamena ekar diezagun

Erantzuna: Zatoz, Jauna, gu salbatzera!



—Fededun guztiak prest egon daitezen Mariak bezala Kristo onartzeko eta hark bezala Bere hitzak bihotzean gordetzeko. Egigun otoitz. R/.

- Fedetik urundu arren Eguberriak ospatzen dituzten gure senideek aurki dezatela Ebanjelioko berri ona, ez ilunpetako argi-izpi bezala bizitza osoa argitzen eta alaitzen duen argi iraunkor eta eder bezala baizik. Egigun otoitz. R/.
- Jaunaren Jaiotza ospatzea gerta dadila zalantzan daudenentzat argi eta barne-minez bizi direnentzat babes eta laguntza. Egigun otoitz. R/.
- Caritasek gaur gogoratzen dizkigun behar guztiak aintzat har ditzagula, gure eguneroko bizitza, eta bereziki Eguberritako festak neurritsu antolatzerakoan. Egigun otoitz. R/.

Jainko gure Jauna, Maria, Israelgo alaba apala, aukeratu zenuen gure artean betiko geratzeko bide; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure nahia onartuz bizitzea, promesa guztiak betetzera mundura etorri zen Zure Semea bezala esaneko izanez. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena (*Diru-bilketa egiterakoan*)

Gogoratu gaurko diru-bilketa gure parrokiako Caritasen beharretarako izango dela. Izan gaitezen eskuzabalak Eguberria gertu izanik zailtasunak nozitzen ari diren senideekin.

Prefazioa: Abendualdiko 4. (*Liburuxka honetan, 8. or.*)

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Betiereko erospenaren agiria harturik,
eskaten dizugu, Jainko ahalguztiduna:
zenbat eta hurbilago izan salbameneko jai,
hainbat eta gartsuago presta gaitzela
zure Semearen jaioteguna ospatzeko.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bukaerako oharpena

Senideok: Jaunari baitez esaten ikasteko ikasbide ederra jaso dugu Ama Mariaren eskutik. Aste honetan egin diezaiogun otoitz bereziki: «erakuts iezaguzu Jesus, zure sabaleko Seme bedeinkatu hori» esanez. Jesus onartuz, gizon-emakume guztiei bihotza irekitzen jakin dezagun.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Jesu Kristo etorri dela sinesten duzue
eta berriro aintzaz etorriko dela itxaroten:**

Jainko ahalguztidun errukitsuak,

Haren etorreraren argiaz,

santu egin zaitzatela eta bere bedeinkapenez bete. R/. Amen.

Bizitza honetan gorde zaitzatela Jainkoak

fedean sendo, itxaropenean alai

eta maitasunean eginkor. R/. Amen.

Orain gure Salbatzaile gizon eginaren etorreraz

pozten zaretenok

gero, berriro aintzaz etorriko denean,

betiereko biziaren saria iritsi diezazuela. R/. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:

Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.